Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Maria Lezeta Errasti

Eskoriatza, Gipuzkoa (1933-2022)



Aurkibidea

Biografia



Eskoriatzako Zapategi baserrian jaiotakoa 1933. urtean. Baserriko bizimodua eta lanak zuzenean ezagutu zituen eta antzinako bizimoduari buruzko azalpen interesgarriak ematen ditu (umetako kontuak, ohitura zaharrak, etab.).

Zintak

ESK-015

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-12-20
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Hika edo zuka nori egiten zioten

- **Erref**: ESK-015/001
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Euskararen erabilera: hika nori egiten dioten. Ohituraren arabera, batzuei hika eta beste batzuei zuka. Hika egitea oso gauza polita dela uste dute. Zuka, konfiantza gutxiago dutenekin egiten dute.

Transkripzioa
- Guk itten dou “hi” konfiantza haundixa [daukunai], gaiñetikuei ez. Etxien be nik semiei betik hi, eta zerai be, ba… alabiai, en kanbio, [alabiai] “zu”. Ta anai-arrebok be beti “hi” bata bestiei. Ez dakit, kostunbrie holaxe.
- Oso-oso politta.
- Danien, ezta? Aizta batekin itten dot “hi” ta bestiekin “zu”.
- Ikusi?
- Bai.
- Zela ohittute…
- Kostunbria.
- Hori da, zelan…
- Zela kostunbretan dan da dana.
- Dana izeten da bai. Holaxe. En kanbio, nik denpora baten… Ama… geldittu nitzen ama barik zazpi urteaz eta aittaz, aittak niri betik “zu” ta beste lau anai-arreba gitzen ta harei “hi”. Ta neuri, en kanbio, gaztiena nitzen ta beti “zu”. Ez dakit ze… hori zela ohittuten zarien edo…
- Bai, ohittura kontuak.
- Bai, ohitturak. En kanbio, Mariñen lagunek gaukenien nik lagunei danai betik “hi”. Bata bestiei “Etorri… ez hator?”. Oin, zahartxuauek bazien harei ez, baiñe geure edadekuei.
- Ez, hori gaur egunian…
- Ta neri hori pentsatzen jaten, neuri “zu” ein ezkero, oin ya akostunbreu naz, baiña han baserrixan danak “hi”, “hi”, ta gero “zu” eitten euenak, ba, falta de konfiantza edo pents… pentsau eitten jaten. Ez dakit.
- Ta, gaiñera, zeuendako be belarrira egingo dau segiduan, ez? Zeiñi “hi” ta zeiñi “zu”…
- Bai, bai.

2. Hitanoaren erabilera senideekin

- **Erref**: ESK-015/002
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:01:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hitanoaren erabilera etxean. Seme-alaben artean ere desberdintasunak; batzuei hika eta beste batzuei zuka.

Transkripzioa
- Ba, hori, gaur egunian hori asko galdu dala eta, biharbada, mutillen artian gehixao [...] da...
- Mutillen artian dana entzuten da hori, “hi”.
- Bai? Oin...
- [...]? Bueno!
- Bai, gure edadekuk bai.
- Bestiek ez?
- [Gaiñetikuen] ez.
- Ta gaztien artian, biharbada, be ba...
- Zure seme anai bixek “hi” itten jone?
- Ez, “zu”.
- Ba, guriek be “zu”.
- Bai. Ta mutil bixei nik hi itten [detsat] ta neskiei ez.
- Ikusi? Ta eurak...
- Ta lehengunien esan osten: “Zeatik ez dostazu niri erakutsi hi itten?”, “Bueno, bueno”.
- Nok? Jonek?
- Bai.
- Ba, erakutsi in bihar... Bai, bai. Baiña hori, ez? Nesken artian galduta edo...
- Ba hori ikesi, erakutsi in bihar dotsazue!
- Hori, ba! Zeuek erakutsi bihar dozue!
- Ezta? Bestela gu, ba, galduta geldittuko gaittun hamen!
- Onbre! Ya lo creo! Guk, behintzet, [geurie] aurrera!
- Geurie aurrera.

3. Eskolan eta abadearekin errespetu handia

- **Erref**: ESK-015/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:04:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
6 urterekin hasi ziren eskolan. Maritxuren maisua, gogorra. Abadea kalean ikusten zutenean, eskuan mun egiten zioten. Errespetu kontuak

eskolan ikasten zituzten. Marin auzoko kontuak. Maisua astean behin joaten zen klaseak ematera. Abadeak euskaraz ematen zituen klaseak; maisuak erdaraz. Hizkuntzaren inguruan tirabirak izaten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Hi zenbat urteaz hasi hitzen eskolan?
- Ni seiaz o, ez dakit, holakon bat.
- Hasi hitzenan? Ni be bai. Ta seiaz. Ta gero maistrue zelakue izeten zonan?
- Maistrua segun…
- Maistrua ala maistrie?
- Maistrie.
- Maistrie eukitten zeuen? Guk, en kanbio, maistrue. Ta gogorra, e? Beti be zaplazteko onak eta.
- Jesus! Bai, e?
- Bai.
- Oseake, jotaillia zan?
- Orduan leña emoten euen danak.
- Bai, gurie… ha okerra. Erakusten be ona zan, baiña ni baten markaute be bai, e?
- Bai, e?
- Juan nitzonan. Eta beziñak-eta: “Ene! Zer pasau jatzu hor Maritxu?” ta “Zer pasau jatzu?” ta “Jausi”. Tonta haundixe! […]. Baiña orduan egoten zan gauza bat maistruekin, abadiek…
- Bai. Errespeto bat…!
- Bai, billurra, ez?
- Bai. Hik be eingo honan, behin baiño gehixao, abadie ikusi ta ze eitten hunan?
- Bueno! Takarraran fan ta mun emuten!
- Mun emuten. Bai, bai. Kalien ikusi ta… Etorri [hona] Marindik igual, ta abade [ez ezaune ta ezebez], sotanie ikusten bageuen, “Hola, ave maría purísima”…
- Bai, ta mun emun ta… bueno!
- … eskutik [obatu] ta emon eitten [geuen].
- Osea, zeuek hori umetan ein izan dozue…
- Bai, umetan ta haundi indde ya hamabi urte ta hamalauaz be bai, e?
- Bai, bastante haundi indde be bai.
- Hamabi-hamalauaz be bai, e? Itten geuen [etorritta abadiek-eta]. Eta autobusien edo faten —autobuse ez, orduan trena egoten zonan— faten bagintzonan ze itten [gixonan]? Asientua aguro librau.
- Aguro!
- Itxi ta persona… zutittu ta jarri.
- Edadeko bat ikusten bagauen…
- Oinguek ez jone eitten hori! Oinguek bultzetu! Oingo gaztiek?
- Bueno, horrenbesterako be…
- Oinguek? Bueno, bueno!
- Ez, nik ez dot esaten oinguk…
- Eta elixan?
- Eleixan be igual.
- Elixan ikusten bazauen edadeko bat han dauela, zu kendu ta sillia emun eta zu zutiñik egon biher.
- Hi, niri beittute eidan berba, bestela hari be eixon “hi”.
- Horrek gauzok ze ikasten zian etxian? Errespetu kontu horrek eta…
- Ba, horixe erakutsi oskun guri maistruek eta…
- Baiña maistruak ala etxian ikasten zan?
- Ez, maistruek gehixao.

- Maistruek. Maistruek gehixao.
- Maistruek?
- Gero etxien be ondo pentsetan jatien, ba... ez dakitzu? Baiñe maistruek horreik... hori eskolatik.
- A, bai, e?
- Bai. Eta gero eurak maistrue eta abadie igual ekitten zien eurak geure aurrien igual... Zeatik izeten zonan —Mariñen behintzet— maistrue etorten zonan hillien o astien behin klasiek emutera etorten zonan. Eta maistruek emuten jonan erderaz, ta abadiek emuten jonan euskeraz.
- Euskeraz? Ta bixen artien burrukan...
- Eta egoten zittunan... Bueno! Euren artien ikusten geuen... hori, hori oso zatarra izeten zan, e? Baiñe gauza danak orduen be polittek be bai gauzak eta zatarrak be bai, e?

4. Gizarteak izan dituen aldaketak

- **Erref**: ESK-015/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Bizitzarekiko ikuspegia. Gauza batzuk (errespetu kontuak...) begi onez ikusten dituzte, baina beste gauza batzuetan gizarteak hobera egin duela uste dute.

Transkripzioa
- Nik pentsetan jonat oingo gaztiek gu baiño hobauak diela, e? Oin horren gauzetan... Por ejenplo, horreik, ba, lekua isten ta, baiña kritiketan ta?
- A! Kritikau ez...
- Ta bata bestiatio gaizki esaten ta lehenguak gehixao gitzen. Lagunartien ta hola, ez dakitzu? Igual zapata zahartxuauek edo soiñeko zahartxuaue edo... Ta orduen oingo gaztiek distintziñua asko be gutxiao dauke bata bestiendako. [Askoaz be hobeto ikusten daue]. Faltan egoten badittun edo mutiko […] bat “Gaur ez jaukat, ba, diruik”, “Autso” ta lagundu. Guk, en kanbio, poltsikuen gordeta [eukitten geben].
- Bai, e?
- Bai, horreik gauzetarako oingo gazterixia askoaz be formalauek die. En kanbio, beste gauza batzuetarako, ba...
- Bai, danetara.
- Danetara. Baiñe... Danetarako izengo da, baiñe... Hori... Por ejenplo, edukaziño haundixe, baiña gero “a la hora de la verdad” igual badakin ze eitten geuen.
- Gero “eskerrikasko” emun biher [geuenien] bape emun ez ta holakuek.
- Bai, halaxe izeten zien orduen kontuek, e?

5. Lehengo bizimodu eta ohiturak: maiorazgoa, errenteroak

- **Erref**: ESK-015/005
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Jatorria. Maritxu Marin auzoan jaiotakoa da eta Mari Lezeta, Eskoriatzako Zapategi baserrikoa. Lehenago ohitura izaten zen maiorazkoa geratzea baserrian. Maritxuren familia, errentero bezala bizi izandakoak. Gerora, baserria bota eta berria eraiki zuten. Anaien inguruko kontuak.

Transkripzioa
- Orduan, zu Mariñen jaixotakua…
- Bai.
- … eta zeu?
- Ni Eskoriatzan hemen.
- Eskoriatzan, Eskoriatzan goixen basarrixan.
- Ze basarri edo zelan daka izena?
- Gu gare lau; edo… bost, bost, bost! Ene! Eta bat, anai bat, hil zan eta bestiok bizi [gare].
- Eta basarrixan izena zein zan?
- Zapategi. Ya handik urten nauen aspaldi ta akabo.
- Ezkontzeko edo…?
- E?
- Ezkonketako, bai.
- Ezkonketako, bai.
- Orduen ezkonketako urteten zan, bestela…
- Eta lanien bazabitzen be ezkonketako urteten zan lanetik. Eta oin segidu eitten daue. Orduen ezkondu biher zan ta ala! Kanpora.
- [Danak] kanpora.
- Zeu be Mariñen basarrixan jaixotakua?
- Bai. Oin ha basarrixa bota auien ta oin barrixe... Bueno, gu gitzen errenteruek, e? Eta oin ha bota auien eta oin han beste barri bat eindde dau […]. Baiña jaixo ni baserrixen ta hogeta sei urte artien baserrixen bizitte. Gaiñera, ama barik. Ba, gitzen lau anai-arreba ta bost niaz, sei beste bateaz. Ta ha beste bat hil estien...
- A, bai, gerra-denporan…
-… hil justenan, hil justenan… gerran… Bueno, “hi” eingo dotsut nik zuri be, e?
- Bai, bai.
- Gerra-denporan… Gerra-denporan ez, ifintten zittuen… Ifini jittunen maniobra batzuk. Ez dakitzu? Mendixen. Ta abixau be ez auien ein.
- “Ez dakin”?
- Eta fuen zan aittaaz ekarritten irie ekarritten. Badakitzu zer dan irie? Ganauei azpixek eitteko. Eta fuen zanien, bueltan bala batek jo eta hamaika egun. Hillen… setienbrien hamaikan sartu otsien balie — hamabost urte euken. Hamasei, hamasei urte euken—, baliek jo euen, ta hemeretzixen hil zan. Bai. Eta gero geldittu gitzen bost anai-arreba. Eta oin bost anai-arreba. Ointxe hiru urte anai bat hil zan, ta oin [dakaaz] bi aizta ta bi anai. Hiru bizi gara Eskoriatzan ta beste bat bizi don Bergaran.

6. Marin auzoa; baserriko bizimodua

- **Erref**: ESK-015/006

- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:50. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Marin auzoa nolakoa zen. 23 baserri inguru zeuden garai batean. Eskola, eliza. Sarritan etxean lagundu beharra zegoen eta ezin izaten ziren beti eskolara joan. Errotara astoarekin nola joaten ziren. Umetan egiten ziren lanak. Umetako jolasak.

Transkripzioa
- Eta Marin auzua, bestela, zelakua zan?
- Politte auzue. Bai. Ondo auen. Oin ez, oin baserri asko hutsik eta hola. Orduen hogeta hiru baserri izeten zien. Hogeta hiru ala gehixau be bai? Hogeta lau bat bai. Eskolie bertan eukitten [geuen], eleixie be bertan dao... Eta danok... eskola handixe...
- Eskolara ta eleixara derrior fan biher! Derrior!
- Bai, bueno!
- Bai, e?
- Bueno!
- Ta, gaiñera, ahal zanien orduen be. Batzuetan fuen biher izeten gitzonan errotara. Asto bat hartu, han ifintten geuen artu edo garixe zorro bat...
- Zorro bat ifiñi...
- Zorro bat ifintten geuen ta errotara faten gitzonan. Eta hara faten gitzenien, ba... Zenbat urte? Hamabi urteaz edo... Hamaika-hamabiaz orduko... eta zazpi-zortzi urteaz be lanak, batien konejuendako bedarra ebai biher izeten gixonan, bestien txarrixandako ezkurre batu, bestien artue karandu ein biher izeten gixonan, babak... Orduen lana ez zan faltetan. Geldittu be ez! Txikitxotatik hasitte, e? Bueno... uu! Jesus Maria! Zenbat...
- Oingo gaztiek bizioz bizi... bizi die.
- Ondo bizi die ta hobeto pentsetan jat, gaiñera, e? Sufriduteko geu nahikua izen gitzonan.
- Zeuena larreikua zan, ez?
- Baiña gu...
- Gurie bai.
- Baiña gu geure denporan ondo bizi gitzen.
- Guk pentsetan geuen [hobeto], guk pentsetan geuen hobeto iñun be ez zala izengo, e? Holaxe pentsetan geuen.
- Besterik ez danian ezautzen, ez?
- Bueno! Gero muñekak-eta be etxe-ostien eukitten gittuen. Bapez! Eta badakitzu ze... faten gitzonan, arto-saillek egoten zien, artue, badakitzu ze dan? Eta haik eukitten euen urteten otsien uliek hola artuei.
- Artobizarrak edo...
- Bai, artuek. Artabizarrak, hori. Ta guk haraxe fuen, orrazixa hartu eta kopetak eitten. Ta harrapetan bagiñuen, “Zer dabitzu hor? [...] arto guztiek alperrik galtzen!” ta hango takarrarie. Baiñe orduen... Ta gustora [holakotxiekin], e!
- Ba lehengo jolasak holaxe zittunan.

7. Umetako jolasak

- **Erref**: ESK-015/007
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Umetako jolasak. Tortoliska; sokasaltoan; tokoka; pote-poteka; "arranpasetan"... Tortoliska nola egiten zuten. "Dama jokue". Mariren baserriak ez zuen inguruan besterik, eta batez ere ganadu-zain ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Tortoliska-ta eitten gauen eskolan.
- Tortoliska ta sokasaltoka ta…
- Hori da, bertan topatzen zenduen…
- Bai, sokasaltoka. Gero tokoka be bai guk.
- Baitte tokoka be bai.
- Tokoka zan…
- Zelan da hori?
- Izeten zonan tokoka igual kuadrillie, ez dakitzu? Ta bat faten zan ta “toko!” eitten otsun ta [hak] harrapau biher zittuen “toko!” bestiei ta “toko!” bestiei ta “toko!” bestiei, igual hamar edo hamabi. Eta atzenengo eitten auena “toko” barriro. Takarraran igual. Han, ba, lekue egoten zan plazatik ziher ta handikaldetik ta harrapetan takarraran “toko!” bati, hak beste bati [eitten otsen], gero beste bat… Txandan holaxe eitten geuen tokoka. “Toko!” ta “Toko!”, [alkarren…] beste bat. Beste bat be [bardiñe[izeten zan, […].
- Eta pote-poteka?
- Pote-poteka, bai. Pote zahar bat izeten zan harrixekin, [betetzen] zonan, eta gero zapaldu ondo ta harek “tra-tra-tra-tra” eitten euen potiorreaz ta danak gordeta sasi ostien, leixo ostien, leixo aurrien… ta, ba, han geldiketan zana, ba, topau ein biher euen [lehelengoko]. Ta zu juaten […] barriro harrapetan baotsuen potie zaukatzun lekue, buelta barriro. Eta barriro hamar kontau, begixak tapau holan ta “Bat, bi, hiru, lau…” ta bestiek bixen bittartien gure dauen lekuen…
- Tranparik ein barik…
- Gure dauen lekuen eitten jonan gorde. Ta gordeten zienien etorten zittunan, barriro harrapetan baeunan zeroi, geldiketan hitzonan lehen bezela. Baiña distraidu… ondo distraitzen…
- Pozik!
- Edozer gauzakin, ez?
- Bai. Ta gero arranpasetan eitten gauenien? Zueik be eingo zauien?
- Zer?
- Arranpasetan. Lurrien jarri, hankak hola ifini, hortara, hola, ta gero eskuek hola ta gero salto.
- Hori ez. Ez, ez.
- E? Guk bai.
- Hori zelan da?
- Ba, lurrien jarten zitzen, lurrien jarritte, e? Bat hemetik eta beste bat hortik. Eta gero hankak hola ifiñi ta honen gaiñien eskuek ta bestiek lurretik, ba, saltau ein biher izeten euien hola. Itten euien.
- Eta horrek ze izen zekan?

- Arranpasetan esaten geuen.
- Arranpasetan?
- Arranpasetan.
- A, beira, sekula ez dot entzun.
- Bai, ba, bi aldetik jarri ta bi... Orduen, [baiña], hankak hobeto luzaketan [gittuen], neskatillak, eta eskuek be bai eta alturan, hankan puntako alturatik. Eta gero [haik...] batzutan ta zapatiak salto eitten [euenien] begiondoko bat hartzen geuen, baiñe... Gutxitten, e? Gutxitten joten zan, zeatik distantzia egoten zan batetik bestera. [Luze ahal zan guztie] ta bestie bestekaldetik... Ta hortxe takarraran etorri ta... Ta alturie be ezan egoten haundixa, neskatillak, ba, hamar-hamabi urte, hamahiru.
- Orduan...
- [...].
- ... kirola be eitten zenduen, ez?
- E?
- Halako kirola, bueno, saltuak-eta be...
- Bai, hori eitten gauen. Ta beste jolasik ze eukitten zonan?
- Eta tortoloska esan dozu eitten zenduela, ez? Tortolosak.
- Tortoliseka.
- Bai, tortoliska bai.
- Eta ze...?
- Kanika bat gora bota ta...
- Oin ez da eitten?
- Ke, ba! Ezebez. Tortolis mordo bat hartzen zan hola ta botaten zien tortolisek ta ifintten zan... Izeten zonan, izeten zonan irabaztie tortolisek [aldemenera]... Nik ahaztuta [dauket].
- Bai, aldemenera ifinttie.
- Ha hartu bittartien haik tortolisek hola [ifini biher zauen].
- Ta alde bata euken lisue ta bestaldera rizaue.
- Bai, holako... bestaldera. Eta, ba, danei bueltia emon biher otsezun, kanikia gora bota eta [hareka], ta jausten jatzunien barriro ta... Ta gero bestie, zuk galtzen bazauen, bestie ta bestie, bestie... igual zortzi neskatilla holaxe jarritte mahaixen. Mahaixe, bai, lurrien! Holako... Gero beste bat dama-jokuen be eitten gauen guk.
- Zuek Mariñen gauza asko eitten zauen!
- Bai!
- Guk [...] bakarrik!
- Hola, hartu, hartu... zela dauka izena? Teilla zati bat eta hola kuadro bat eitten zan hortara ta hortara. Ta gero hola ta hola. Ta hemen zentruen ifintten geuen harritxuek. Ta ez dakit nik gero zela eitten [geunan]. Han harritxue [ifintten] han... Ahaztuta dauket zela izeten zan. Dama-jokue izeten zan, dama-jokue esaten gutsen.
- Dama-jokua?
- Dama-jokue esaten gutsen. Ta holako zer bat, kuadrue, ein ta hortara ta hortara ta ez dakit harritxue han gaiñien ifini ta gero zela eitten geuen be ez dakit.
- Holako gauza asko honek han bertan etxe mordotxo bat eta lagunek danak bertan. Ta guk, [barriz], baserrixen... Bakarrik basarrixoi ta gu han.
- Inguruan bazekazuezen beste basarri batzuk edo?
- Inguruan beste etxe barik, beste etxe barik. Ta guk zer? Ganauak zainddu ta holako gauzak.

8. Inguruan zutenarekin jolasten zuten

- **Erref**: ESK-015/008

- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:12:20. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak. "Dendatxoka" nola egiten zuten. Inguruan aurkitzen zituzten lore, frutu eta abarrekin jolasten zuten. ("Sakutie"; belar izena). Dirurik ez eta ondoan zutenarekin jolasten zuten; imaginazio handia.

Transkripzioa
- Gero dendatxoka be bai...
- Bai, hori be bai, bai.
- Dendatxoka. Ifini... arbolai-ta kendu loratxuek eta bestiei orrixek kendu, ifini holako tablatxo bat edo harri haunditxuenak hola topau... “Hemen daz azelgak saltzen, hemen... —izenak ifintten gutsen— hemen tomatie”. Ta, ba, igual tomatie kentzen gutsen horrek... berdurak egoten zien loratxo moduen [...], baltzak, zela esaten otsien... jutsenen horrei? Txorixek jaten dauena, ez dakin? Zela...? Sakutie. Sakutie ez zan?
- Bai, sakutie, sakutie.
- Baltza urteten jutsena, holako loratxo [baltza, sakutiei]. Eta haik hartzen gittuen ta, ba, kazuelatxo... kazulie, bai, holako zatin batzuk fratelen bat apurketan bazonan haren zatixek. Hurrengo tazan bat apurketan zana ta lustre kajie be izeten zonan. Lustre kajie be bete han beste orritxuekin ta dendaka, bueno, holaxe!
- Badakitzu lustrie zer dan?
- Lustria...
- Betuna edo...
- Bai, ez?
- Betune, betune, bai.
- Zapatak garbitzeko ta...
- Bai, ta haren tapak sobratzen zienien haik garbittu ta [holakoxe dendatxuek]. Erositta orduen gauzaik ezebez! Dana holakotxiek.
- Baiña orduan imaginaziñua... ez?
- E?
- Imaginaziño asko eukitzen zenduela, ez? Ta edozer gauzakin...
- Bai, bai, bai, hori bai. Bestela ondo eitten geuen jolas.

9. Garizumako debekuak; garizumako jolasa: txirikila

- **Erref**: ESK-015/010
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:
Neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren. Aste Santuan ezin izaten ziren nobioarekin irten; ezta dantza egin ere. Abadearen sermoia pulpitutik. Garizuman txirikilarekin jolasten zuten. "Txopuetan", txirikilarekin jolas

egiteko beste modu bat. Bolalekuak: herrian; Marin auzoan... Txirikilarekin garizuman bakarrik jolasten zuten.

10. Bolalekuak Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-015/011
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:
Kalean bolalekurik egon ote zen ez dute ongi gogoratzen, baina auzoetan bazeuden: Bolibarren, Marinen... Zenbat txirlorekin jolasten zen; apusturik ez zen egiten.

11. Eskolan erdaraz ikastea kostatu egiten zitzaien; zigorrak

- **Erref**: ESK-015/012
- **Iraupena**: 0:05:50. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:24:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskola kontuak. Maritxuren maisua nolakoa zen. Umeek beldurra izaten zioten maisuari. "Billurrez aidien". Eskolan neska-mutilak banatuta. Medikua, maisua, albaitaria, abadea... garrantzi handiko pertsonak gurasoentzat. Maisua erdalduna zen eta euskaraz hitz egiten entzunez gero zigortu egiten zituen. Gurasoekin ere erdaraz egin beharra. Erdaraz jakin ez; momentu txar asko pasatu zituzten. Eskolan ikasitako kantak. Elizako kantak berriz, euskaraz. Eskolan erdaraz ikastea kostatu egin zitzaien.

12. Inguruetatik ere umeak Marinera klase partikularretara

- **Erref**: ESK-015/013
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:27:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Maritxu 1935ean eta Mari 1933an jaiotakoa. Eskola kontuak: ordutegia... Inguruko auzoetatik ere umeak Marinera joaten ziren klase partikularrak hartzera.

13. Mutilak eta neskak banatuta ibiltzen ziren

- **Erref**: ESK-015/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:27:00. **Bukatu**: 00:27:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Mariren irakaslea Zumarragakoa zen baina klaseak erdaraz ematen zituen. Mutilak eta neskak banatuta ibiltzen ziren jolasean...

14. Dotrina euskaraz ere ikasten zuten

- **Erref**: ESK-015/015
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:27:50. **Bukatu**: 00:30:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
14 urtera arte eskolara joandakoak dira. Dotrina ere eskolan bertan ikasten zuten. Maringo abadea eskolara joaten zen dotrina ematera. Maisuaren eta abadearen arteko tirabirak euskararen inguruan. Mariren kasuan, elizara joaten ziren dotrina ikastera. Bezperak; arrosarioa. Don José Agirre, Maringo abadea (Astigarragakoa). Abadeei izaten zitzaien errespetua. Mari Lezetak dotrina euskaraz eta erdaraz ikasi zuen.

15. Dena zen bekatu eta gainera konfesatu egin behar

- **Erref**: ESK-015/017
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:32:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Elizakoak gaixorik zegoenari. Abadea pasatzen zenean belauniko jarri behar izaten zen jendea. Erlijioaren inguruko kontuak zenbat aldatu diren. Lehen dena zen bekatu. Konfesatzera joan beharra.

16. Juan Etxabe abadea

- **Erref**: ESK-015/018
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:32:20. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:
Garizuman, "pazkoakoa" egiteko txartel bila joan behar izaten ziren abadearengana. Ezkontzeko ere dotrinaren inguruko galderak egiten zituen abadeak. Abadeak ezkon-bizitzaren inguruan azaldu zizkion kontuak. Juan Etxabe abadea.

17. Mezak nolakoak izaten ziren

- **Erref**: ESK-015/020
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:36:05. **Bukatu**: 00:37:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Mezak nolakoak izaten ziren: latinez... Umeen okerkeriak.

18. Erlijioaren inguruko ohiturak; debekuak

- **Erref**: ESK-015/021
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:37:30. **Bukatu**: 00:38:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Erlijioaren inguruko ohiturak; debekuak. Jauna hartzeko baraurik joan beharra.

19. Kanpai-klaseak; arrosarioa errezatzeko ohitura

- **Erref**: ESK-015/022
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:40:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Kanpai desberdinak egunean zehar. Iluntzean "aramaittako" kanpaia jo eta soroan lanean egonda ere, errezatu egin behar izaten zuten. Gauetan arrosarioa errezatzen zuten etxean; arrosario, letania, misterio eta guzti.

20. Luto kontuak; hilarriak; ohitura zaharrak.

- **Erref**: ESK-015/023
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:40:35. **Bukatu**: 00:43:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Erlijioaren inguruko azalpenak. Luto kontuak. Hilarriak. Ohitura zaharrak.

21. Egun berezietan anis kopatxoa eta galletak

- **Erref**: ESK-015/024
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:44:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Urtebetetze egunean edo jai egunetan, goizean gurasoek anis kopatxo bat eta galleta batzuk eramaten zizkieten seme-alabei ohera. Txokolatea... oso gutxitan jaten zuten.

22. Zurrakapotea: ardoa berotu eta ogitan busti

- **Erref**: ESK-015/025
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:44:25. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Beraien baserrietan ez zen ia ardorik edaten. Aitak batzuetan (gaixorik zegoenean edo) ardoa berotu eta ogitan bustitzen zuen ("zurrakapotia").

23. Erlauntzak zituzten eta eztia saldu egiten zuten

- **Erref**: ESK-015/027
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:45:30. **Bukatu**: 00:48:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Baserrietan erleak edukitzeko ohitura handia. Erlauntzak. Mari Lezetaren ama erlategitik eztia ateratzen zuen. Eztia saldu egiten zuten. Argizaria ere egiten zuten. Argizaria etxeko lurra garbitzeko erabiltzen zen.

24. "Pujetie" nola egiten zuten

- **Erref**: ESK-015/028
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:50:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropak garbitzera askara edo errekara joaten ziren. "Pujetie" nola egiten zuten aurrekoek.

25. Ehunezko arropak

- **Erref**: ESK-015/029
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:50:25. **Bukatu**: 00:51:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Ehunezko arropak: izarak... Gurasoen arropak: barruko-arropak...

26. Emakumeen bizimodu gogorra baserrian

- **Erref**: ESK-015/030
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:51:55. **Bukatu**: 00:53:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Arto-malutazko koltxoiak ezagutu zituzten; gerora artilezkoak etorri ziren. Emakumeen lanak; bizimodu gogorra.

27. Emakumeen bizimodu gogorra baserrian

- **Erref**: ESK-015/031
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:53:10. **Bukatu**: 00:54:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Emakumeen lanak; bizimodu gogorra. Soroan egiten zituzten lanak: arbia

erein; laietan; artajorran... Jai egunetan ere dantzara joan ahal izateko lehenengo soroko lanak amaitu behar izaten ziren.

28. Ume-umetatik baserian lanean

- **Erref**: ESK-015/033
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:54:45. **Bukatu**: 00:56:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Baserriko lanetan ume-umetatik lagundu beharra. Neska-mutilen arteko lan-banaketa. Soroan zer ereiten zuten: garia, artoa, arbia, erremolatxa; sekula-belarra, ailorbea.. Garia nola jotzen zuten; azalpenak.

29. Gari-jotzearen inguruko azalpenak

- **Erref**: ESK-015/034
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:56:45. **Bukatu**: 00:58:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Gari-jotzearen inguruko azalpenak. Artoa, baba... nola ereiten zuten. Artajorra.

30. Arbiaren inguruko lanak; abereak

- **Erref**: ESK-015/035
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:58:20. **Bukatu**: 01:00:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Arbiaren inguruko lanak. Abereak kortan egoten ziren. Txahala nola hazten zuten.

31. Gaztaina eta sagarrak saltzera Gasteizera

- **Erref**: ESK-015/037
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:00:55. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Gaztainak, sagarrak saltzera Gasteizera joaten ziren. Trenez eramaten zuten jeneroa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com